

## **219. ALDIZKARIA - 2011ko azaroaren 4a**

### **2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK UHARTE**

#### **Udalaren ludoteka zerbitzuaren tasak onetsita**

Udalaren ludotekaren zerbitzuaren tasak hasiera batean onesteko erabakia 2011ko 181. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 11n. Jendurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, aipatutako erabakia behin betikoz onetsita dago eta aldaketaren testua argitara ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan, Nafarroako Toki Araubidea Eguneratzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legeak aldatu zuen hartan, xedatuari jarraikiz. Hona hemen:

-7.500 eurora bitarteko per capita errenten kuota: 20,50 euro/urtea.

-7.500 eurotik 15.000 eurora bitarteko per capita errenten kuota: 32 euro/urtea.

-15.000 eurotik goitiko per capita errenten kuota: 41 euro/urtea.

-Erroldatu gabeendako: 62 euro/urtea.

Uharten, 2011ko urriaren 20an.-Alkatea, Iñaki Crespo San José.